

IKASTURTE HASIERA


Ondo hasi dugu ikasturte berria, egoera berri eta erronka berriei egokitzen, geure erritmora egoerak eskatzen duen neurrian baina umeak erdigunean kokatuta eta errespetuz.

Arau eta neurriak aldatzen joango dira eta ikastolak familiekin harreman zuzena mantetzeko momentuko aldaketa guztien berri jakinaraziko die bitarteko ezberdinen bidez. Tartean, gisa honetako buletinak bidaliko ditugu beharrezana dagoen aldiro.

KOMUNIKATZEKO: TELEFONOA ETA EMAILA

Osasun egoera dela eta, betetzen ari garen protokoloak Ikastolako eremuan, kanpoko pertsonen sarrera mugatzea eskatzen digu. Hori dela eta, hemendik aurrera harreman guztiak telefono edo posta elektronikoko bitartez bideratuko ditugu:

- **Tutoreekin** hitz egiteko **emaila** erabili, horren ostean beharrezkoa den kasuetan tutorea jarriko da zuzenean gurasoekin harremanetan.
- **Jantokian** izena emateko **WhatsApp-a: 610141398**. Gogoratu 24 ordu lehenago abisatzea.
- **Haur hezkuntzako** arduradunekin zuzenean harremanetan jartzeko: **944 65 31 80**.
- **Jarduera osagarrietako** arduradunekin harremanetan jartzeko **WhatsApp-a: 627371687**
- **Idazkaritzako** gestioak: **94 684 09 59** zenbakira deituta.



GURASO ORDEZKARIEKIN BILERAK

Ikastola guraso ordezkariekin bildu da aste honetan ikasturte hasieran hartutako irizpide berriak elkarbanatu eta gurasoen kezkek jasotzeko. Honako gai hauek landu dira:

- **Hezkuntza Sailaren protokoloa:** abuztuaren 28an jasotako protokoloa uztailean Ikastolan landutakoarekin uztartu dugu, legea bete eta segurtasuna bermatzeko.
- **Ordutegi aldaketaren** arrazoiak:
 - Segurtasuna
 - Operatibitatea, giza baliabideen koordinazioa
 - Kirol proiektuaKanpotik datozenak edo ordutegi ezberdinak dituzten familien arazoa, banan-banan aztertzen ari da ikastola.
- Ikasturte hasierako **guraso batzarrak:** Ikuskaritzatik aurrez-aurreko guraso batzarrak ekiditzeko eskatu digute, horrenbestez aurrez-aurreko bilerak etapa aldaketako geletan egitea proposatu du ikastolak (HH3, LH1-2, LH5 eta DBH1n). Gelaren batean beharrezana ikusten bada, gaia aztertuko da. Beste bilerak MEET bitartez egingo dira.
- Momentuz, **bizikleta eta patinetean** ez etortzeko erabakia hartu du ikastolak.
- **Eskola Kirola** proiektuari buruzko informazioa gurasoei helarazteko bilera egiteko premia.
- **Motxilan pisuarekin** ibiltzea ekiditzeko, mahai azpiko apalak erabiltzea onartu da.
- Gurasoen eta ikastolaren arteko **komunikazioa** hobetzeko neurriak hartuko dira.

